



ADMINISTRAZIOEN ARTEKO  
**EUSKARAZKO HARREMANAK**  
SUSTATZEKO PROIEKTUA

Kultura arloetako diagnostikoa

2019ko iraila

## Aurkibidea

1. Azterketaren nondik norakoa .....	4
2. Ahozko harremanak.....	7
2.1. Harreman motak .....	11
2.2. Solaskidearen erakundea .....	14
3. Idatzizko harremanak.....	19
3.1. Harreman motak .....	23
3.2. Solaskidearen erakundea .....	28
4. Gako nagusiak.....	33

Eranskina: Galdetegi ereduak

HAKOBak, Herri Administrazioen Koordinazio Batzordeak, esperientzia pilotu bat jarri du martxan, erakundeen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin. Laneko komunikazioetan, ahozko zein idatzizko jardunean, euskararen erabilera areagotzea du xedea. Bi alorretan egingo du esperientzia pilotua: berdintasunean eta kulturaren.

EAEko erakundeek osatzen dute Hakoba: Eusko Jaurlaritzak; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek; Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalek; Eudel udal elkarteak; eta Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Hain justu, azterketa honetan ere hiru erakunde esparru horiek hartu dira aintzat: Jaurlaritza, diputazioak eta udalak. Erakunde horietan berdintasunaren eta kulturaren arloan ari direnak hartu dira aztergai, haien lan jarduneko komunikazio hizkuntza.

Lanean hasteko, abiapuntuko diagnostikoa egin du, Siadeco Ikerketa Elkartearen bidez. Honako txosten honetan bildu da kultura arloko langileekin egindako azterketa. Beharginei egindako inkesta baten bitartez, aztertu da lanean norekin izaten dituzten ahozko eta idatzizko harremanak, eta zein hizkuntza erabiltzen duten.

## Azterketaren nondik norakoa

Langileei egindako inkesta bat da ikerketaren zimendu nagusia. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) informazioa helarazi dio Siadecori: zehazki, kulturaren arloan hiru erakunde esparru horietan —Jaurlaritza, diputazioak, eta udalak eta mankomunitateak— ari diren langileei buruzko informazioa eta haiekin harremanetan jartzeko bidea, inkesta helarazteko.

Azterketan sartzeko, bi irizpide hartu dira kontuan: beste erakundeekin ahozko edota idatzizko harremana izatea eta 2. hizkuntza eskakizuna edo altuagoa gaindituta edukitzea.

Abiapuntuko informazio horretan oinarrituta, *on line* bidezko inkesta bat bidali zaie langile guztiei. Zehazki, 552 behargini bidali zaie galdetegia, Jaurlaritzak igorritako dokumentazioan ageri diren guztiei. Haietatik 526ri bideratu zaie inkesta —gainerakoen kasuan intzidentziak izan dira: baja luzeak, errepikapenak...—, eta 502k erantzun dute inkesta. Hamarretik bederatzik baino gehiagok, beraz.

1. taula: Abiapuntuko zerrenda eta jasotako erantzunak, erakunde motaren arabera.

Erakunde mota	Lurraldea	HPStik jasotako zerrendako langileak	Intzidentziak (baja luzea, ez dagokio, errepikatua)	Benetako abiapuntua, intzidentziak kenduta	Erantzunak		
					Guztira	% bert	% horiz
Eusko Jaurlaritza		53	4	49	45	9,0	91,8
Foru aldundiak	Araba	48	4	44	41	8,2	93,2
	Bizkaia	7	0	7	6	1,2	85,7
	Gipuzkoa	17	3	14	13	2,6	92,9
Hiriburuak	Bilbo	28	1	27	25	5,0	92,6
	Donostia	28	-	28	27	5,4	96,4
	Gasteiz	0	-	0	0	0,0	-
Udalerriak, mankomunitateak eta kuadrillak	Araba	17	1	16	16	3,2	100,0
	Bizkaia	188	7	181	171	34,1	94,5
	Gipuzkoa	166	6	160	158	31,5	98,8
Guztira		552	26	526	502	100,0	95,4

Iturria: HPS eta Siadeco, 2019

Emaitza ontzat jo daiteke hamar beharginetik bederatzik baino gehiagok galdetegari erantzun izana. Hala ere, kontuan izan behar da datu bilketa horretan HPSk bidalitako informazioa dela oinarri, eta ez dagoela zehaztuta 552 langileko kopuru horrek unibertso osoa edo haren zer zati hartzen duen, eta, beraz, ezta galdetegia erantzun duten 502 langileek zenbateko dimentsioa duten ere.

Hona hemen inkestan parte hartu dutenen ezaugarri nagusiak:

2. taula: Inkesta erantzun duten kultur arloko teknikari eta langileen ezaugarri nagusiak

	Ezaugarria	Kopurua	%
Sexua	Emakumeak	359	71,5
	Gizonak	143	28,5
Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna	1. HE	5	1,0
	2. HE	77	15,3
	3. HE	300	59,8
	4. HE	116	23,1
	Batere ez	4	0,8
	Lan arloa	Kultura sustapena	185
Sustapena		16	3,2
Ondarea		32	6,4
Kultura sustapena guztira		233	46,4
Liburutegia		163	32,5
Orokorra		81	16,1
Museoak eta zaharberritzea		17	3,4
Kategoria profesionala	Artxiboak	8	1,6
	Buru eta zuzendariak	34	6,8
	Teknikariak	187	37,3
	Administrariak	161	32,1
	Laguntzaile orokorrak	107	21,3
Guztira	Zehaztu gabe	13	2,6
		502	100,0

*Iturria: HPS. Siadecok landua, 2019*

Bidalitako galdetegiak udalerraren arabera banatuta zenbatuz gero, hara: denera, udaletako 397 langilek erantzun dituzte galdetegiak. Hona zer banaketa duten udalerriko biztanle kopuruaren eta gune soziolinguistikoaren arabera:

3. taula: Inkesta erantzun duten udaletako kultur arloko langileak, udalerriko biztanle kopuruaren eta gune soziolinguistikoaren arabera

		Langile kopurua	%
Biztanleria	<5.000 biztanle	94	23,7
	5.000-20.000 biztanle	152	38,3
	>20.000 biztanle	99	24,9
	Hiriburuak	52	13,1
Gune soziolinguistikoa	%20-50 euskaldunak	177	44,6
	%50-80 euskaldunak	186	46,9
	>%80 euskaldunak	34	8,6
Guztira		397	100,0

*Iturria: HPS. Siadecok landua, 2019*

## 2


# Ahozko harremanak

Erakundeetan kulturaren arloan dihardutenek ahozko harremanetan zer hizkuntza darabilten aztertu da. Zehazki, honako erabilera hauei buruz galdetu da: aurrez aurreko solasaldiak, telefono bidezkoak, lan bilerak eta ekitaldiak (aurkezpenak, mintegiak, topaketak...). Harreman bakoitza zer erakunderekin izaten duten ere galdetu da, erabileraren azterketa sakonagoa egite aldera.

Datu orokorra hau da: batez beste, ahozko solasaldien %70,8 izaten dituzte euskaraz kultura arloko langileek erakundeen arteko harremanetan. Erabilera orokor hori sakonago aztertu da informazioa eman duen langileen ezaugarrien arabera: sexua, erakunde mota, lurraldea, lan arloa, kategoria profesionala, egiaztatutako hizkuntza eskakizuna. Udaletako langileen kasuan, beste bi ezaugarri ere hartu dira kontuan: udalerriko biztanleria eta gune soziolinguistikoa.

Banaketa horrek azalera ditu desberdintasun batzuk. Kultura arloko langileen arteko ahozko harremanei dagokienez, honako hauetan egiten dute euskara gehien: udaletan, Gipuzkoan, sustapen arloan, administrariak eta laugarren eskakizuna lortu dutenek —udalei dagokienez, hauetan ere bai: 5.000-20.000 biztanlekoetan eta laugarren gune soziolinguistikoan—. Aztertutako aldagai guztietan euskaraz aritzen dira langile gehienak, lautan izan ezik: Arabako eta Bizkaiko diputazioak (%28 eta %34), Arabako udalak (%27), eta lehen eskakizuna duten langileak (%48).

1. grafikoa: Euskararen batez besteko ahozko erabilera (%)




Iturria: Siadeco, 2019.



Batez besteko erabilera tasa horien azpian badira gorabeherak: langile bakoitzak ahozko harremanen zer hein egiten duen euskaraz. Datu orokorrek hau diote: langileen %28k erdia baino gutxiago egiten dute euskaraz; %43k, gehiena; eta %30ek, ia dena.

Aurrez aztertutako aldagai horiek ere eraman dira tarteen sistemara. Erabileran ahulago non dabiltzan erakutsi du konparazio horrek. Hauek dira hutsune nagusiak, langile gehienek batik bat erdaraz egiten duten lekuak: Arabako eta Bizkaiko diputazioak; Arabako udalak; museoen, zaharberritzearen eta ondarearen esparruak; eta lehen eta bigarren hizkuntza eskakizunak dituzten beharginak. Indarguneak ere badira. Adibidez, hiru langiletik bi baino gehiago ia beti euskaraz ari dira honako hauetan: Gipuzkoako udalak eta mankomunitateak, eta laugarren hizkuntza eskakizuna duten beharginak —udalerrien arloan zehazki, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalak, eta erdiak baino gehiago euskaldunak diren udalerriak—.

2. grafikoa: Batez besteko ahozko erabilera, tarteen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019.


■ <%25  
 ■ %25-50  
 ■ %50-75  
 ■ %75-95  
 ■ >%95

## 2.1 Harreman motak

Erabilera datu orokorretik harago, aztertzekoa da harreman mota bakoitzean zenbat erabiltzen duten euskara. Badago aldea batetik bestera, baina ez da hamar puntura iristen diferentzia. Batez besteko datuen arabera, euskara gehien telefonoan (%74) eta aurrez aurreko solasaldietan (%71) erabiltzen dute kulturaren esparruko langile publikoek. Euskara nagusi da aztertutako beste bi harreman motetan ere: lan bileretan (%66) eta ekitaldietan (%66).





Zehaztutako aldagaiak erabilera mota bakoitzarekin alderatuta, gutxi-asko berretsi egiten dira orain arte agertutako aldeak. Hutsune nagusiak honako eremu hauetan daude: Arabako eta Bizkaiko foru aldundietan; Arabako udaletan eta mankomunitateetan; museoan, zaharberritzearen eta ondarearen esparruan; eta lehen eta bigarren hizkuntza eskakizunak dituzten langileetan. Udalen kasuan, bigarren gune soziolinguistikoan. Indargune nagusiak hauek dira: Gipuzkoako erakundeak; laugarren hizkuntza eskakizuna lortua duten beharginak; eta, udalen kasuan, hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoak.

3. grafikoa: Batez besteko ahozko erabilera, komunikazio motaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

■ Aurrez aurre (A) ■ Telefonoz (T) ■ Lan bilerak (B) ■ Ekitaldiak (E)



Iturria: Siadeco, 2019.

Aurrez aurre (A)    Telefonoz (T)    Lan bilerak (B)    Ekitaldiak (E)

## 2.2

### Solaskidearen erakundea

Erakundeen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko proiektu pilotua jarri nahi du martxan Hakobak, eta, hain justu, komunikazioaren bi aldeak uztartu dira atal honetan: inkesta erantzun duen langilearen erakundea ez ezik, solaskidearen erakundea. Horrek bide eman du erakunde barruko ahozko harremanak eta kanpora begirakoak alderatzeko, eta erakunde batzuen eta besteen arteko harremanetan euskararen erabilera nolakoa den aztertzeko.

Batetik, ondorio nabarmen bat: kanpora begirako harremanetan euskara gehiago erabiltzen dute barruko ahozko erlazioetan baino —hala ere, kontuan izatekoa da Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Diputazioko kultura arloko langile gehienak euskaraz aritzen direla beren artean—. Bestetik, agerikoa da erakunde guztien arteko harremanak gehienbat euskarazkoak direla, Arabako Diputazioarekikoak izan ezik —harekin, batez beste, hirutik bat pasatxo aritzen da euskaraz, %36—. Proporzioan udal langileek bideratutako harremanetan handiagoa da euskararen erabilera, batik bat Gipuzkoako udalen kasuan.

4. taula: Euskararen batez besteko ahozko erabilera, inkestatuaren erakundea eta solaskidea kontuan hartuta (%)

NORK	NOREKIN					
	Jaurlaritzarekin	Arabako Aldundiarekin	Bizkaiko Aldundiarekin	Gipuzkoako Aldundiarekin	Udalekin	
Eusko Jaurlaritza	65,9	53,1	60,6	73,1	74,5	
Foru aldundiak	Araba	52,7	27,3	46,0	51,1	36,2
	Bizkaia	45,0	41,8	28,8	41,3	23,0
	Gipuzkoa	64,8	35,0	52,2	69,2	81,1
	Guztira	55,3	29,4	42,3	58,9	53,2
Udalak (hiriburuak barne)	Araba	28,6	16,8	-	-	34,0
	Bizkaia	74,6	81,3	68,9	90,6	73,1
	Gipuzkoa	83,3	75,0	100,0	88,2	89,3
	Guztira	77,6	38,5	69,6	88,3	79,6
Hiriburuak	Bilbo	67,2	-	48,7	100,0	52,5
	Donostia	74,5	62,5	100,0	77,1	71,3
	Guztira	72,2	62,5	56,0	79,5	62,8
Guztira	EAE	65,9	53,1	60,6	73,1	74,5
	Araba	44,7	25,4	46,0	51,1	35,1
	Bizkaia	74,0	53,0	66,0	63,2	72,8
	Gipuzkoa	82,4	52,1	64,2	85,9	88,8
	Guztira	74,1	36,6	64,0	81,2	77,5

Iturria: Siadeco, 2019

Kolore urdinez, erakunde barneko ahozko harremanak

Ahozko harremanetan lau arlo aztertu dira, eta diferentzia adierazgarriak daude erakunde batzuen kasuan. Adibidez, Jaurlaritzarekiko harremanetan nabarmen handiagoa da euskararen presentzia aurrez aurre eta telefonoz, bileretan eta ekitaldietan baino. Aldundietan ere nabari da aldea; udaletan, berriz, gutxiago.

5. taula: Batez besteko erabilera, ahozko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%)

Harremaneko erakundea	Aurrez aurre	Telefonoz	Lan bileretan	Ekitaldietan
Eusko Jaurlaritzarekin	73,6	79,8	66,5	64,4
Arabako Foru Aldundiarekin	42,1	38,5	29,9	33,7
Bizkaiko Foru Aldundiarekin	61,8	69,1	56,8	55,2
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin	81,1	84,2	78,3	76,9
Arabako udalekin	40,7	39,4	32,9	40,0
Bizkaiko udalekin	74,0	78,3	74,9	74,7
Gipuzkoako udalekin	91,5	92,5	89,1	89,2
2. gune soziolinguistikoko udalekin	61,2	62,2	58,8	60,5
3. gune soziolinguistikoko udalekin	91,5	93,7	90,6	90,1
4. gune soziolinguistikoko udalekin	100,0	99,9	98,8	98,8

*Iturria: Siadeco, 2019*

Harreman horiek aztertzean kontuan izan behar da batzuen eta besteen maiztasuna ez dela berbera. Ondorengo taulan bildu dira zenbatekoa den maiztasuna erakunde batzuetako eta besteetako kultura arloko langileen ahozko harremanetan. Joera batzuk argi nabari dira. Batetik, erakunde barruko harremanak direla ugarienak: langile gehienek dute harremana beren erakundeko kultura esparruko beste langile batzuekin, eta egunero, gainera. Horren ondoren, hau da harremanen hurrenkera: udalak beren artean —harreman handieneko hiru udalak hautatzeko eskatu zaie inkestatuei—, eta udalak eta foru aldundiak —beren herrialdearen barruan—. Jaurlaritzarekiko harremanak dira txikiak: udaletako eta diputazioetako langile gehienek ez dute harremanik izaten Jaurlaritzarekin —Gipuzkoako Foru Aldundia da salbuespena, bostetik hiruk esan baitute badutela erlazioa, baina hor ere gehien-gehienek hilean behin baino gutxiagotan dute—.

6. taula: Ahozko harremanen maiztasuna, inkestatuaren erakundearen eta harremana daukan erakundearen arabera (%)

Eusko Jaurlaritzarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		82,2	8,9	2,2	6,7
Foru aldundiak	Araba	0,0	12,2	22,0	65,9
	Bizkaia	0,0	16,7	16,7	66,7
	Gipuzkoa	0,0	7,7	38,5	53,8
	Guztira	0,0	11,7	25,0	63,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	6,3	37,5	56,3
	Bizkaia	0,5	4,1	44,9	50,5
	Gipuzkoa	0,0	7,6	51,9	40,5
	Guztira	0,3	5,8	47,9	46,1

Arabako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	13,3	31,1	55,6
Foru aldundiak	Araba	70,7	22,0	4,9	2,4
	Bizkaia	0,0	33,3	50,0	16,7
	Gipuzkoa	0,0	7,7	23,1	69,2
	Guztira	48,3	20,0	13,3	18,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	12,5	43,8	43,8
	Bizkaia	0,0	0,0	1,0	99,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	1,1	98,9
	Guztira	0,0	0,5	2,8	86,7

Bizkaiko Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	8,9	33,3	57,8
Foru aldundiak	Araba	0,0	4,9	9,8	85,4
	Bizkaia	100,0	0,0	0,0	0,0
	Gipuzkoa	0,0	7,7	30,8	61,5
	Guztira	10,0	5,0	13,3	71,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	1,2	38,3	60,2
	Gipuzkoa	0,0	0,0	1,1	98,9
	Guztira	0,0	0,8	19,4	79,8





Gipuzkoako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi asteen behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	11,1	28,9	60,0
Foru aldundiak	Araba	0,0	2,4	12,2	85,4
	Bizkaia	0,0	33,3	50,0	16,7
	Gipuzkoa	69,2	15,4	0,0	15,4
	Guztira	15,0	8,3	13,3	63,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	2,0	98,0
	Gipuzkoa	0,0	3,2	45,4	51,4
	Guztira	0,0	1,5	22,2	76,3

Lehen udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi asteen behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	8,9	28,9	62,2
Foru aldundiak	Araba	0,0	14,6	17,1	68,3
	Bizkaia	0,0	0,0	16,7	83,3
	Gipuzkoa	0,0	38,5	30,8	30,8
	Guztira	0,0	18,3	20,0	61,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	18,8	31,3	18,8	31,3
	Bizkaia	23,5	12,8	30,6	33,2
	Gipuzkoa	23,8	22,2	31,9	22,2
	Guztira	23,4	17,9	30,7	28,0


Bigarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi asteen behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	6,7	20,0	73,3
Foru aldundiak	Araba	0,0	9,8	7,3	82,9
	Bizkaia	0,0	0,0	16,7	83,3
	Gipuzkoa	0,0	15,4	38,5	46,2
	Guztira	0,0	10,0	15,0	75,0
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	12,5	6,3	81,3
	Bizkaia	0,0	7,7	26,5	65,8
	Gipuzkoa	0,5	8,1	38,9	52,4
	Guztira	0,3	8,1	31,5	60,2

Hirugarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi asteen behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	8,9	15,6	75,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	4,9	9,8	85,4
	Bizkaia	0,0	0,0	16,7	83,3
	Gipuzkoa	0,0	23,1	30,8	46,2
	Guztira	0,0	8,3	15,0	76,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	12,5	6,3	81,3
	Bizkaia	0,0	5,1	23,5	71,4
	Gipuzkoa	0,0	3,2	35,1	61,6
	Guztira	0,0	4,5	28,2	67,3

turria: Siadeco, 2019

Aztertutako ahozko erabilerak eta harremanen maiztasuna kontuan izanda, erabilera indize bat sortu da. Horretarako, ahozko lau harreman motetako erabileraren batez bestekoa egin da —aurrez aurrekoa, telefonokoa, bileretakoa eta ekitaldietakoa—, eta maiztasunaren arabera haztatu. Horren arabera, Gipuzkoako udaletan eta diputazioan erabiltzen dute euskara gehien kulturaren esparruko langileek: euskararen erabilera da nagusi, alde handiarekin. Apalago, baina nagusi da Bizkaiko udaletan eta Eusko Jaurlaritzan ere. Aldiz, Bizkaiko eta Arabako diputazioetan euskararen erabilera ez da erdira iristen.

4. grafikoa: Euskararen ahozko erabilera haztatua (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

### 3


## Idatzizko harremanak

Aztertu da idatzizko harremanetan ere zein den euskararen presentzia herri administrazioetako kultura alorretako langileen jardunean. Kontuan izatekoa da idatzizko harremanen kasuan erakundeetan hedatua dagoela ele bietan aritzea, euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean. Hori dela eta, euskarazkoak ez ezik, azterketan kontuan hartu dira bi eleetan egindakoak ere.

Inkestaren emaitza orokorra hau da: euskararen erabilera %55ekoa da, eta horri erantsi behar zaizkio ele biz idatzitako dokumentuak, %29. Finean, beraz, euskarak presentzia du sei idazkitik bostean, eta gehienetan erabat euskaraz idatzita daude dokumentu horiek. Erabilera orokor hori sakonago aztertu da informazioa eman duen langileen ezaugarrien arabera: sexua, erakunde mota, lurraldea, lan arloa, kategoria profesionala, egiaztatutako hizkuntza eskakizuna. Udaletako langileen kasuan, beste bi irizpide ere hartu dira kontuan: udalerriko biztanleria eta gune soziolinguistikoa.

Hizkuntzen erabilerari buruzko jokabide desberdinak agertu ditu konparazio horrek. Erabat euskaraz egindako komunikazioak honako hauetan dira nabarmenago: Gipuzkoako udaletan; laugarren hizkuntza eskakizuna duten beharginetan; eta udaletan, hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan. Erabat euskaraz egindako agiriak batez bestekotik behera daude, berriz, hauetan: Jaurlaritzan; Arabako eta Bizkaiko diputazioetan; Arabako udaletan; museoetan eta zaharberritzeen arloan, ondarearen esparruan, buru eta zuzendarietan; lehen eta bigarren hizkuntza eskakizunetan; eta, udalen kasuan, herri handienetan eta bigarren gune soziolinguistikoan. Izatez, erakunde horietako askotan, joera dute erabat euskaraz baino gehiago egiteko ele biz —argia da Bizkaiko eta Arabako diputazioen kasua—. Hala ere, erabilera osoa kontuan hartuta, batez besteko orokorretik nabarmen beherago daude honako hauek: Arabako udalak; Arabako eta Bizkaiko diputazioak; eta museoen, zaharberritzearen eta ondarearen esparruak.

5. grafikoa: Batez besteko idatzizko erabilera (%)




Iturria: Siadeco, 2019.

■ Euskara ■ Ele bietan

Idatzizko komunikazioak zein hizkuntzatan egiten dituzten langileek, tarreak sortu dira, datuak sakonago ikusteko. Komunikazioetan euskara erabiltzeari dagokionez, hiru erakunde esparrutan ageri da hutsunerik handiena: Arabako udaletan eta diputazioan, eta Bizkaiko Foru Aldundian. Horietan, izan ere, langile gehienek ez dituzte euskaraz idazten agiriak. Txanponaren beste aldean daude Gipuzkoako Foru Aldundia eta, batez ere, udalak. Euskarazko agiriak idazteko ohitura txikiena dute hauek ere: hiriburuek; kultur sustapenaren, museoen, zaharberritzearen, sustapenaren eta ondarearen arloek; buruek eta zuzendariak; eta lehen eta bigarren hizkuntza eskakizuna dutenak. Euskaraz aritzeko joera handiena, Gipuzkoako erakundeekin batera, hauek: 20.000 biztanlez azpiko udalek, eta hirugarren eta laugarren guneko soziolinguistikoetakoak.

Erabat euskaraz idazten dutenei ele bietan aritzen direnak gehituta, areagotu egiten dira ehunekoak, jakina, baina badira, hala ere, agiri gehiago erdara hutsez idazten dituztenak: Arabako eta Bizkaiko foru aldundietan, eta Arabako udaletan.

6. grafikoa: Batez besteko idatzizko erabilera, tarteen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2019.



## 3.1 Harreman motak

Euskararen erabilera aldatu egiten da idatzizko komunikazio motaren arabera. Euskararen erabilera orokorra hartuz gero —alegia, erabat euskarazkoa eta ele bietakoa batuta—, ez da diferentzia handia ageri komunikazio motaren arabera: hiru puntu azpiko diferentzia. %85 bueltan dabil euskararen erabilera orokor hori. Alde nabarmenena da zertan erabiltzen dituzten gehiago euskara hutsezko testuak, eta zertan ele bietakoak. Testu laburretan, ez-ofizialetan egiten dituzte erabat euskarazko idazki gehienak: kultura arloko hiru langiletik bik idazten dituzte erabat euskaraz (%67). Komunikazio formalagoetan, berriz, handiagoa da ele bietan aritzeko joera —testu teknikoetan, lan bileretako dokumentuetan eta ekitaldietan—, baina, hala ere, kasu guztietan dira gehixeago erabat euskaraz idatzitako agiriak. Gaztelania hutsezko erabilera %15ekoa da.

Erakunde esparruaren arabera badaude aldeak, hala ere. Hona gako nagusiak:


- Kultura arloko langile gehienek euskaraz idazten dituzte testu laburrak, baina ez erakunde guztietan. Honako hauetan, ez: Arabako udaletan; Bizkaiko eta Arabako foru aldundietan; museoen, zaharberritzearen eta ondarearen arloetan; eta lehen hizkuntza eskakizuna daukaten langileen artean. Areago, Bizkaiko eta Arabako diputazioen kasuan, erdara hutsez idazten dituzte gehienek. Euskaraz aritzeko ohitura hedatuena, berriz, honako hauetan ageri da berriro ere: Gipuzkoako udaletan eta diputazioan; 20.000 biztanlez azpiko udalerrietan; hirugarren eta laugarren guneko soziolinguistikoetan; eta laugarren hizkuntza eskakizuna duten beharginen artean.
- Testu teknikoetan txikiagoa da euskararen erabilera, eta euskaraz egiten duten langileen proportzioak gehiengoak galtzen du Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian. Ele bietan idatzitakoen proportzioa, berriz, handiagoa da, eta aldaketa bat dakar horrek: erakunde arlo guztietan, euskararen presentzia duten testu teknikoak dituzte beharginen erdiek baino gehiagok.
- Lan bileretako dokumentazioari dagokionez, joerak bat datoz, oro har: erabat euskarazko agiriak ez ditu hamar langiletik batek ere izaten Bizkaiko eta Arabako diputazioetan, eta Arabako udaletan. Euskarazko agiriak gutxiengoak dira, orobat, honako hauetan: hiriburuetako eta bigarren guneko soziolinguistikoko udaletan; museoen zaharberritzearen, artxiboaren eta ondarearen esparruetan; buruen eta zuzendarien artean; eta lehenengo eta bigarren hizkuntza eskakizunak dituzten beharginen artean. Laneko bileretan euskarazko

agiriak dituzte, aldiz, Gipuzkoako Diputazioko eta udaletako langile gehienek, 20.000 biztanle baino gutxiagoko herrietakoek, liburategietakoek, eta laugarren hizkuntza eskakizuna dutenek.


- Ekitaldiei dagokienez, azkenik, antzera: idazkiak euskaraz ez dauzkaten langileak gehiengo dira Arabako udaletan eta aldundian, Bizkaiko Aldundian, hiriburuetan, bigarren gune soziolinguistikoko udaletan, buruetan eta zuzendarietan, lehen eta bigarren hizkuntza eskakizunetan, eta honako esparru hauetan: museoak, zaharberritzea, artxiboak, sustapena eta ondarea. Kontrara, euskarazko agiriak dituzte langile gehienek eremu hauetan: Gipuzkoako udaletan eta diputazioan, 20.000 biztanlez azpiko udalerrietan, hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan, liburategietan eta arlo orokorrean, administrarietan eta laguntzaile orokorretan, eta laugarren hizkuntza eskakizuna duten beharginetan.






7. grafikoa: Batez besteko idatzizko erabilera komunikazio motaren arabera (L: testu laburrak, ez-ofizialak; T: testu teknikoak; B: lan bileretako agiriak; E: ekitaldiak) (%)



■ Euskara ■ Ele bietan



Euskara Ele bietan



■ Euskara ■ Ele bietan

Iturria: Siadeco, 2019.

## 3.2

### Solaskidearen erakundea

Erakunde arteko harremanak euskalduntzea du helburu proiektuak, eta idatzizko erlazioetan, igorlea ez ezik, jasotzailea ere garrantzizkoa da. Horregatik, bi aldeak bateratu dira: inkesta erantzun duen langilearen erakundea eta solaskidetza zer instituzioarekin duen. Horren bidez, erakunde barruko idatzizko harremanak eta kanpora begirakoak aztertu dira.

Barruko eta kanpoko idatzizko komunikazioak aztertzeko bidea eman du alderaketak. Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Diputazioaren kasuan nabari da barneko idazkietan handiagoa dela euskararen erabilera, kanpora begirakoetan baino; Bizkaiko eta Arabako aldundietan, berriz, txikiagoa.

7. taula: Euskararen batez besteko idatzizko erabilera, inkestatuaren erakundea eta solaskidea kontuan hartuta (%)

	Jaurlaritzarekin		Arabako Aldundiarekin		Bizkaiko Aldundiarekin		Gipuzkoako Aldundiarekin		Udalekin		
	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	Eusk	Elebi	
<b>Eusko Jaurlaritza</b>	<b>44,4</b>	<b>30,7</b>	29,8	41,2	30,7	45,2	41,1	41,1	41,1	40,1	
Foru aldundiak	Araba	25,2	39,2	<b>11,5</b>	<b>36,8</b>	22,5	38,5	30,0	37,5	15,6	32,8
	Bizkaia	17,1	45,6	13,3	60,6	<b>11,5</b>	<b>37,6</b>	13,5	52,3	15,6	32,8
	Gipuzkoa	45,0	35,0	45,8	16,7	47,2	26,9	<b>69,4</b>	<b>18,2</b>	71,7	25,7
	Guztira	29,3	38,9	14,6	37,1	27,3	34,1	49,4	29,3	33,5	32,5
Udalak (hiriburuak barne)	Araba	25,8	35,2	4,1	44,8	-	-	-	-	29,6	25,7
	Bizkaia	52,2	39,2	10,0	0,0	54,4	33,6	62,5	0,0	59,6	25,9
	Gipuzkoa	60,8	31,9	61,7	38,3	33,3	66,7	61,9	34,2	79,1	15,9
	Guztira	55,6	35,3	15,1	39,6	54,1	34,0	61,9	33,5	68,8	20,5
Hiriburuak	Bilbo	46,5	36,4	10,0	0,0	26,0	47,0	62,5	0,0	27,1	39,1
	Donostia	39,4	44,6	33,3	66,7	33,3	66,7	38,8	51,8	43,0	44,5
	Guztira	41,5	42,1	21,7	33,3	26,9	49,2	40,9	47,3	37,9	42,8
Guztira	EAE	44,0	30,7	29,8	41,2	30,7	45,2	41,1	41,1	41,1	40,1
	Araba	25,4	37,7	10,2	38,2	22,5	38,5	30,0	37,5	21,7	31,6
	Bizkaia	51,1	39,4	12,7	48,5	51,2	33,9	29,9	34,9	58,6	26,1
	Gipuzkoa	60,0	32,0	51,1	23,9	45,2	32,6	62,8	32,4	78,7	16,4
	Guztira	51,8	35,0	18,4	38,5	46,4	35,7	57,3	33,8	64,0	22,8

Iturria: Siadeco, 2019

Kolore urdinez, erakunde barneko ahozko harremanak

Idatziko harremanetan lau harreman mota hartu dira aztergai: testu laburrak, teknikoak, lan bileretako agiriak eta ekitaldietakoak. Hartzailearen arabera aldatu egiten da batzuetako eta besteetako moldea. Erabat euskaraz aritzeko joera handiena testu laburretan dute langileek, erakunde guztiekiko harremanetan. Testu teknikoetan eta lan bileretako dokumentuetan, berriz, leku handiagoa hartzen du elebitasunak, batik bat erakunde hauekin: Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko eta Arabako diputazioekin, eta bigarren gune soziolinguistikoko udalekin. Aldiz, erabat euskaraz egiteko joera handiagoa dute Gipuzkoako Diputaziora, Bizkaiko eta Gipuzkoako udaletara, eta hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoko udaletara idazten dutenek. Arabako udalekiko harremanetan, berriz, erdara hutsez aritzeko ohitura dago zabalduago.

8. taula: Batez besteko erabilera, idatzizko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%)

Hartzailea	Testu laburrak		Testu teknikoak		Lan bileretako dokumentuak		Ekitaldietako idazkiak	
	Eusk.	Elebi.	Eusk.	Elebi.	Eusk.	Elebi.	Eusk.	Elebi.
Eusko Jaurlaritzarekin	66,6	22,3	39,4	47,4	40,8	47,3	42,9	41,3
Arabako Foru Aldundiarekin	31,5	21,5	10,8	53,8	9,9	44,6	11,8	44,1
Bizkaiko Foru Aldundiarekin	62,8	18,0	37,1	47,1	32,2	49,7	40,2	43,0
Gipuzkoako Foru Aldundiarekin	72,8	18,0	44,1	46,0	49,3	43,8	49,5	42,6
Arabako udalekin	21,3	19,4	11,5	47,0	12,1	25,9	14,6	29,4
Bizkaiko udalekin	74,0	11,0	48,6	43,6	54,4	37,0	49,1	36,6
Gipuzkoako udalekin	90,7	4,8	72,8	23,6	80,7	15,8	78,9	18,3
2. gune soziolinguistikoko udalekin	55,7	16,5	26,7	54,4	29,5	45,2	29,4	42,2
3. gune soziolinguistikoko udalekin	93,2	2,5	75,0	22,2	83,4	14,1	79,3	18,7
4. gune soziolinguistikoko udalekin	96,1	3,9	92,2	6,9	98,8	1,3	97,0	3,0

*Iturria: Siadeco, 2019*

Harreman horiek aztertzean kontuan izan behar da batzuen eta besteen maiztasuna ez dela berbera. Ondorengo taulan bildu dira zenbatekoa den maiztasuna erakunde batzuetako eta besteetako kultura arloko beharginen arteko harremanetan. Ahozko harremanetan sumatutako joerak ageri dira. Batetik, erakunde barruko harremanak izatea ohikoenak. Bestetik, hurrenkera hau: udalen arteko harremanak —hiru hautatzeko eskatu zaie—, eta, ondoren, foru aldundien eta udalen artekoak —beren herrialdekoak—; Jaurlaritzarekiko harremanak daude azkenik. Ahozko harremanen aldean badago ñabardura bat, hala ere: egunero idatzizko harremana dutenen portzentajea apalagoa da.

9. taula: Idatzizko harremanen maiztasuna, inkestatuaren erakundearen eta harremana daukan erakundearen arabera (%)

Eusko Jaurlaritzarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		46,7	24,4	13,3	15,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	9,8	24,4	65,9
	Bizkaia	0,0	0,0	50,0	50,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	46,2	53,8
	Guztira	0,0	6,7	31,7	61,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	6,3	0,0	43,8	50,0
	Bizkaia	0,5	3,1	45,4	51,0
	Gipuzkoa	0,0	4,9	53,5	41,6
	Guztira	0,5	3,8	49,1	46,6

Arabako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	15,6	26,7	57,8
Foru aldundiak	Araba	46,3	31,7	17,1	4,9
	Bizkaia	0,0	33,3	33,3	33,3
	Gipuzkoa	0,0	0,0	30,8	69,2
	Guztira	31,7	25,0	21,7	21,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	6,3	43,8	50,0
	Bizkaia	0,0	0,0	0,5	99,5
	Gipuzkoa	0,0	0,0	1,1	98,9
	Guztira	0,0	0,3	2,5	97,2

Bizkaiko Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	11,1	24,4	64,4
Foru aldundiak	Araba	0,0	2,4	7,3	90,2
	Bizkaia	66,7	33,3	0,0	0,0
	Gipuzkoa	0,0	0,0	46,2	53,8
	Guztira	6,7	5,0	15,0	73,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	1,0	37,2	61,7
	Gipuzkoa	0,0	0,0	0,5	99,5
	Guztira	0,0	0,5	18,6	80,9

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	8,9	28,9	62,2
Foru aldundiak	Araba	0,0	0,0	9,8	90,2
	Bizkaia	0,0	33,3	33,3	33,3
	Gipuzkoa	69,2	7,7	15,4	7,7
	Guztira	15,0	5,0	13,3	66,7
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	0,0	0,0	100,0
	Bizkaia	0,0	0,0	1,0	99,0
	Gipuzkoa	0,0	1,6	48,6	49,7
	Guztira	0,0	0,8	23,2	76,1

Lehen udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	6,7	31,1	62,2
Foru aldundiak	Araba	0,0	9,8	22,0	68,3
	Bizkaia	0,0	0,0	33,3	66,7
	Gipuzkoa	0,0	38,5	15,4	46,2
	Guztira	0,0	15,0	21,7	63,3
Udalak eta mankomunitateak	Araba	12,5	37,5	12,5	37,5
	Bizkaia	12,2	12,8	21,9	53,1
	Gipuzkoa	17,3	18,9	29,2	34,6
	Guztira	14,6	16,6	24,9	43,8


Bigarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	6,7	17,8	75,6
Foru aldundiak	Araba	0,0	4,9	14,6	80,5
	Bizkaia	0,0	0,0	33,3	66,7
	Gipuzkoa	0,0	23,1	15,4	61,5
	Guztira	0,0	8,3	16,7	75,0
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	6,3	6,3	87,5
	Bizkaia	0,5	5,1	16,8	77,6
	Gipuzkoa	1,1	4,3	31,4	63,2
	Guztira	0,8	4,8	23,2	71,3

Hirugarren udalarekin					
Nork		Egunero	Astero edo bi astean behin	Hilean behin edo gutxiago	Harremanik ez
Eusko Jaurlaritza		0,0	6,7	13,3	80,0
Foru aldundiak	Araba	0,0	4,9	14,6	80,5
	Bizkaia	0,0	0,0	33,3	66,7
	Gipuzkoa	0,0	23,1	15,4	61,5
	Guztira	0,0	8,3	16,7	75,0
Udalak eta mankomunitateak	Araba	0,0	6,3	6,3	87,5
	Bizkaia	0,5	2,6	14,3	82,7
	Gipuzkoa	0,0	1,6	23,2	75,1
	Guztira	0,3	2,3	18,1	79,3

Iturria: Siadeco, 2019

Idatzizko erabilerak eta harremanen maiztasuna kontuan izanda, erabilera indize bat sortu da. Horretarako, idatzizko harreman motetako erabileraren batez bestekoa egin da —agiri ez-ofizialak, teknikoak, bileretakoak eta ekitaldietakoak—, eta maiztasunaren arabera haztatu. Horren arabera, erakunde gehienetan euskarak presentzia du agiri gehienetan, izan erabat euskaraz edo ele bietan —Arabako Diputazioa eta udalak dira salbuespena—. Erabat euskaraz edo ele bietan egin, badaude aldeak. Euskarazko agiriak baino gehiago dira ele bietakoak Bizkaiko eta Arabako aldundietan; euskarazkoak gehiago dira, ordea, Eusko Jaurlaritzan, Gipuzkoako Diputazioan, Bizkaiko eta Gipuzkoako udaletan, eta hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan.

8. grafikoa: Idatzizko erabilera haztatua (%)



Iturria: Siadeco, 2019.

■ Euskara ■ Ele bietan



## 4

# Gako nagusiak

Erakunde publikoetan kulturaren arloan diharduten langileen hizkuntza erabilera aztertu da, bai ahozko harremani dagokienez, bai idatzizkoei dagokienez. Hona azterketaren gako nagusiak, ondorio gisara planteatuta:

### Datu orokorrak

EAEko administrazioetako kultura arloko langile gehienek euskaraz izaten dituzte erakunde arteko harremanak, bai ahoz (%71), bai idatziz (%55 euskaraz eta %29 ele bietan). Batez besteko horien azpian badira aldeak beharginen artean. Ahozkoan, adibidez, hirutik batek ia dena egiten du euskaraz (%30), eta bostetik bik, erdia baino gehiago (%43). Idatzian, laurdenek egiten dute ia dena euskaraz (%27), eta beste horrenbestek gehiena euskaraz (%25). Datu horiek haztatu egin dira erabilera maiztasunaren arabera.

### Erakundeen arteko aldea

Erakunde bateko eta besteko langileen erabileran oso alde handia dago, bai ahozkoan, bai idatzizkoan. Batez bestekotik nabarmen behera daude Arabako erakundeak: aldundia eta udalak. Azpitik ageri dira Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia ere. Kontrako muturrean Gipuzkoa ageri da, bai diputazioa, bai udalak. Herrialde horretako erakundeetako kultura arloan euskara da hizkuntza nagusia, aldearekin.

## Erakunde bakoitzeko egoera

Erabilera hori zergatik gertatzen den azaltzeko, ezinbestekoa da, batetik, euskararen ezagutzari begiratzea: euskaraz aritzeko zer gaitasun duten langileek. Hizkuntza eskakizunei erreparatzen bazaie, maila aurreratu ageri da oro har: bost langiletik lauk hirugarren edo laugarren eskakizuna dute lortua (%83), eta batez besteko horretatik gora daude Eusko Jaurlaritza, Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiak, eta Gipuzkoako udalak.

Bestetik, kultura arloko egoerari ez ezik, komeni da erakundearen panoramari oro har begiratzea, horrek eragina baitauka barneko funtzionamenduan eta hizkuntza ohituretan. Alde horretatik, kontuan izatekoa da kultura arloko langileen hizkuntza gaitasuna erakundeetan oro har dagoena baino handiagoa dela. Datu hauek ageri dira *EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa* txostenean: hirugarren eta laugarren eskakizunak langileen %42k dituzte EAEko administrazioetan —kulturakoen artean, bi aldiz gehiagok—. Hizkuntza gaitasunarekin lotuta, kontuan izatekoa da azterketa horretako beste datu bat ere, herrialdeka emana: Arabako erakundeetan, bost langiletik hiruk zailtasunak dituzte euskaraz jarduteko (%57), eta Bizkaikoetan, hirutik batek (%33); Gipuzkoan gutxiagok, zortzitik batek (%13). Egoera horrek, jakina, eragina du erakundeko erabileran eta hizkuntza ohituretan.

## Erakunde barrua eta kanpoa

Euskara gehiago non erabiltzen duten, joera da beste erakunde bateko langileekin egitea gehiago, erakunde barnekoekin baino, batik bat ahozko harremanei dagokienez. Idatzizkoan bi joerak ageri dira: Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kultur arloko langileek erakunde barruan egiten dute euskaraz gehiago, eta Arabako eta Bizkaiko diputazioetakoek, beste erakundeekin.

Idatzizko harremanetan bada beste joera bat ere: ele bietan idazteko ohitura handiagoa da beste erakunde batzuekiko harremanetan, erakunde barnekoetan baino. Denek ez dute, ordea, neurri berean idazten ele bietan. Ohiturarik handiena Arabako eta Bizkaiko diputazioek dute, eta Arabako udalek: erabat euskaraz baino gehiago egiten dute bi hizkuntzetan. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, berriz, paretsuan dabilta bi moduetara egiten duten langileak. Erabat euskaraz aritzeko joera handiagoa Gipuzkoako diputazioak eta udalek dute, eta Bizkaiko udalek. Ahozko harremanetan ere berbera da joera euskararen erabilerari dagokionez.

## Erakundeen arteko harremanak

Lotura argia ageri da bi aldagaien artean: erakunde bateko langileek euskara zenbat erabiltzen duten eta beste erakunde batekoek zenbat erabiltzen duten erakunde horrekin. Hara: Arabako eta Bizkaiko foru aldundietan, ohitura handiagoa dute ele bietan aritzeko, eta gainerako erakundeek ere hala bidaltzen dituzte agiriak bi diputazio horietara. Aldiz, erabat euskaraz egiteko joera handiagoa da Gipuzkoako Aldundian eta udaletan, eta Bizkaiko udaletan; eta horietara idazten dutenek ere gutxiago jotzen dute elebitasunera. Jaurlaritzaren kasuan, paretsuan dago euskararen eta bi hizkuntzen erabilera, eta gainerako erakundeek ele bietan jo ohi dute Jaurlaritzara.

## Eranskina

### Galdetegi eredua

# ADMINISTRAZIOEN ARTEKO EUSKARAZKO HARREMANAK KULTUR ARLOA

## Inkestaren aurkezpena

Hizkuntza Politika gaietarako Herri Administrazioen Koordinazio Batzordeak, HAKOBak, lantalde bat sortu du administrazioen arteko euskarazko harremanak sustatzeko. Ildo horretan, bi arlo hartuko dituen proiektu bat martxan jarriko da EAEko administrazio guzti-guztietan: berdintasuna eta kultura arloetan.

Proiektuaren helburua hauxe da: EAEko administrazioko eta foru- eta toki-administrazioetako lan-komunikazioetan euskararen erabilera bultzatzea, ahoz zein idatziz, aipaturiko bi arlo horietan. Lehen fase batean egoeraren abiapuntuko diagnostikoa egingo du Siadeco Ikerketa Elkartek.

Hori dela eta, zuregana jotzen dugu galdetegi honi erantzun diezaiozun eskatuz. Erantzun beharreko inkestarako sarbidea duzu jarraian.

Gogoratu, inkesta bidez jasotako informazioa, konfidentzialtasun osoz tratatuko dela; datuen erabilera pertsonalizaturik ez da egingo eta emaitza estatistiko orokorrak kalkulatzeko baino ez dira erabiliko.

Argibide gehiago behar izanez gero, SIADeco Ikerketa Elkartearekin kontaktatu dezakezu.

Aldez aurretik, zure lankidetzak eskertzen dizugu,



## AHOZKO HARREMANAK

### 1. ZEIN ERAKUNDETAKO KULTUR ALORREKO LANGILEEKIN IZATEN DITUZU AHOZKO HARREMANAK?

MESEDEZ, AUKERATU DAGOZKION GUZTIAK

Eusko Jaurlaritza

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalak

Erakunde horietako bakar batekin ere ez


### 1.1. ADIERAZI ZEIN UDALEKIN DITUZUN AHOZKO HARREMANAK MAIZTASUN HANDIENAREKIN

1 UDALA ..... \_\_\_\_\_

2 UDALA ..... \_\_\_\_\_

3 UDALA..... \_\_\_\_\_

### 2. ZENBATEKO MAIZTASUNAREKIN HITZ EGITEN DUZU ADIERAZITAKO ERAKUNDE HORIETAKO KULTUR ARLOKO ERAGILEEKIN?

SARRERA BAKOITZARI DAGOKION ERANTZUNA AUKERATU, MESEDEZ

Eusko Jaurlaritza

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

1. Udala

2. Udala

3. Udala

Egunero	Astero	Hamabost- ean behin	Hilean behin	Urtean zenbait alditan	Urtean behin baino gutxiagotan

### 3. ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ERAKUNDE HORIETAKO KULTUR LANGILEEKIN?

ARGIBIDEAK:

- a) EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN AHOZKO ERABILERAREN PORTZENTAJEAK IPINI BEHAR DITUZU, ERAKUNDE BAKOITZEAN ETA KOMUNIKAZIO MOTAREN ARABERA, HAU DA, AURREZ AURRE, TELEFONOZ, LAN BILERETAN ETA EKITALDIETAN. AURREKO KOMUNIKAZIO MOTA HORIETAKOREN BAT EZ BADUZU, ZERO IDATZI BEHAR DUZU, BAI EUSKARAREN ZUTABEAN BAITA GAZTELANIAREN ZUTABEAN ERE. KOMUNIKAZIO MOTA HORI BALEGO, ALDIZ, EUSKARAZKO ETA GAZTELANIAZKO ZUTABEETAKO PORTZENTAJEEN BATURAK 100 IZAN BEHAR DU.
- b) KULTUR LANGILEAK AIPATZEN DIRENEAN GUZTIEI BURUZ ARI GARA, EUSKARAZ DUTEN HIZKUNTZA GAITASUNA KONTUAN HARTU GABE

Aurrez aurre		Telefonoz		Lan bilerak		Ekitaldiak (aurkezpenak, mintegiak, topaketak,...)	
Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt	Eus	Gazt
Eusko Jaurlaritza							
Arabako Foru Aldundia							
Bizkaiko Foru Aldundia							
Gipuzkoako Foru Aldundia							
1. Udala							
2. Udala							
3. Udala							

### IDATZIZKO HARREMANAK

#### 4. ETA ZEIN ERAKUNDETAKO KULTUR ALORREKO LANGILEEKIN KOMUNIKATZEN ZARA IDATZIZ? MESEDEZ, AUKERATU DAGOZKION GUZTIAK

Eusko Jaurlaritza

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalak

Erakunde horietako bakar batekin ere ez


#### 4.1. ADIERAZI ZEIN UDALEKIN DITUZUN IDATZIZKO HARREMANAK MAIZTASUN HANDIENAREKIN

1 UDALA ..... \_\_\_\_\_

2 UDALA ..... \_\_\_\_\_

3 UDALA..... \_\_\_\_\_

**5. ZENBATEKO MAIZTASUNAREKIN IZATEN DITUZU IDATZIZKO HARREMANAK ADIERAZITAKO ERAKUNDE HORIETAKO KULTUR ARLOKO ERAGILEEKIN?**  
SARRERA BAKOITZARI DAGOKION ERANTZUNA AUKERATU, MESEDEZ

	Egunero	Astero	Hamabost- ean behin	Hilean behin	Urtean zenbait alditan	Urtean behin baino gutxiagotan
Eusko Jaurlaritza						
Arabako Foru Aldundia						
Bizkaiko Foru Aldundia						
Gipuzkoako Foru Aldundia						
1. Udala						
2. Udala						
3. Udala						

**6. ETA IDATZIZKO KOMUNIKAZIO HORIEK ZEIN HIZKUNTZATAN EGITEN DIRA?**

**ARGIBIDEAK:**

EUSKARAZ, ELE BIETAN ETA GAZTELANIAZ EGITEN DIREN IDATZIZKO KOMUNIKAZIOEN PORTZENTAJEAK IPINI BEHAR DITUZU, IDAZKI MOTAREN ARABERA, HAU DA, TESTU ERRAZ/LABUR/EZ OFIZIALAK DIRENEAN, TESTU LUZE/TEKNIKO/OFIZIALAK, LAN BILERETAKO DOKUMENTAZIOA EDOTA EKITALDIETAKO DOKUMENTAZIOA DENEAN. AURREKO IDATZIZKO KOMUNIKAZIO MOTA HORIETAKOREN BAT EZ BADUZU, ZERO IDATZI BEHAR DUZU, HIRU ZUTABEETAN, EUSKARARENEAN, ELE BIETAKOAN ETA GAZTELANIARENEAN. KOMUNIKAZIO MOTA HORI BALEGO, ALDIZ, EUSKARA, ELEBI ETA GAZTELANIA ZUTABEETAKO PORTZENTAJEEN BATURAK 100 IZAN BEHAR DU.

	Testu erraz/labur/ez ofizialak			Testu luze/teknikoak			Lan bileretako dokumentazioa (aktak, deialdiak, dokumentuak)			Ekitaldiak (aurkezpenak, mintegiak, topaketak...)		
	Eus	Elebi	Gazt	Eus	Elebi	Gazt	Eus	Elebi	Gazt	Eus	Elebi	Gazt
Eusko Jaurlaritza												
Arabako Foru Aldundia												
Bizkaiko Foru Aldundia												
Gipuzkoako Foru Aldundia												
1. Udala												
2. Udala												
3. Udala												





## HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

### 7. ZEIN DA ZUK EGIAZTATUTA DAUKAZUN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA(HE)?

MESEDEZ, AUKERATU HAUETAKO BAT BAKARRIK

- 1. HE
- 2. HE
- 3. HE
- 4. HE
- Bat ere ez


**HAU IZAN DA GUZTIA.  
MILA ESKER ERANTZUTEAGATIK.**